

Jesus jaioten da... egunero jaio bear dogu

Abenduak urtearen amaikerea esan gura dau, baina baita Jesusen Jaiotzea be. Ori dala eta sekulako ekinaldiak egiten ditugu geienok gure lagun eta adiskideei berba batzuk bialtzeko. Urte guztian baino arazo geiago artzen dogu Gabonetako tarjetak batari eta besteari bialtzen. Geu be askozaz samurrago gabilzala esango neuke. Era askotariko tarjetak jasoten dira. Zorionak letra aundiz idatziak asko. Batzuk beste zerbait gogoratzen deuskue: "Negarrez dagon bat pozten dozunean, ingurukoagan Jesus bera ikusten dozunean, zure giroan bizi-poza ereiten dozunean, Gabonak dira". Jasoko zenduan orrelako texturen bat ekarren tarjetaren bat, ezta? Aparteko zirradatxoa egin oi deuste neuri beintzat.

Zelango gomuta ederrak Gabonak dirala eta. Umetzaroan eta geroago be Gabonak aparteko eragina dabe, Jesusen Jaiotzeari darion aparteko zera. Etxeak "jaiotzaz" apaintzen dira. Gurasoak lagundurik edo umeak eurak euretara egiten dabe beartxu ori, eta pozik egin be gainera. Eskolan be oporrak artzen ditue umeak eta, ortik atara kontuak.

Gabonak! Zeruetan jai, Jesus jaio dalako. Belenen jai, Jeusen jaioterri egin dalako. Etxeetan jai, Juangoikoak emon eban berbea bete egin ebalako. Ez da gitxiagorako. Ortxe dabe sentidua gure tarjetak eta alkarri zorion opaka jarduteak.

Ondo dago guzti ori. Gabonak be era askotara ospatu leitekez. Era askotara ospatzen dira munduan zear. Batzuk zaratasuago, beste batzuk isilago, batzuk

familia giroan aintxinako abesti zaarrak abestuaz eta birloratuaz, beste askok kurutzearen zamtadea euren maminetan eta azurretan sentitzen dabelarik. Maai oparoagoak an-or-emen, langabeziaren arantzeak emoten daben gazi-mingotsari gozagarririk ipini ezinik be bai mordo bat.

Jesusen Jaiotza barriztatzea, egunero jaioten joatea dogula kontutan arturik, ortxe dogu berebiziko, aitaturiko tarjeten mezua: "Inguruan bizi-poza ereitean Gabonak dira". Jaunaren aurrean, lagunurkoaren aurrean Jaungoikoaren seme-alaba arpegia barriztatzen joaten gara "Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean Aren gogoko gizonei" abestia geure bizitza biurtzen dogunean. Eta orraxe jo bearra daukagu, egunero barriztatza, egunero jaiotera. Zenbat eta alkartuago eta obeto. Era tarjetak adiskideei bialtzea, ederra da. Baina bizi-tzeaz mindurik bizi direnei geure lagun-tzatxoa eskuratzerakoan, askozaz be tarjeta ederragoa bialtzen dogula konturatu bear geunke. Etxeak apaintzen dituan "jaiotzeak" ez dau aparteko ditzira barririk izango ausaz, baina barruko "jaiotzeak" bai, eta ori askozaz be interesgarriagoa da.

Jesus jaioa zan eta beti jaioten jaku, baina geu egunero jaioten ete gara gure lagunurkoentzat? Ara or aurtengo Gabonetarako bialtzen deusudan tarjetatxoa. Ez da asko, baina asko izan gure leuke. Zorionak aurretiaz.

S. BARRUETABENA, cp.